

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****NAVARIDASKO UDALA****Behin betiko onestea udal igerilekuaren zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa**

Udalbatzak, 2023ko urriaren 24an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion udal igerilekuaren zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari. Horren iragarkia ALHAOn 129 zenbakian (2023ko azaroaren 3koa) argitaratuz jendaurrean jarri zen eta, inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onesten da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jendaurrean jartzen da udal igerilekuaren zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa argitaratuz.

**UDAL IGERILEKUKO ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA
ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA****Eranskina****Denboraldirako abonamendua**

— Helduak	35,00 euro
— 4-14 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak	25,00 euro

Hilabeteko abonamendua

— Helduak	25,00 euro
— 4-14 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak	20,00 euro.

Eguneko sarrera

— Helduak	3,00 euro
— 4-14 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak	1,50 euro.

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egokitzen jotzen den beste zernahi errekurtsu ere jarri ahal izango da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Navaridas, 2023ko abenduaren 5a

Alkatea

MIKEL FERNÁNDEZ CALLEJA